

Benegasen grabaketak aireratzeari ez da delitu epailearen ustez

DONOSTIA

Ignacio Bigeriego Madrileko 25 zenbakiko Instrukzio epaileak, «Benegas kasuaren» epailea, esan zuen Txiki Benegas PSOEko Antolakuntza idazkariaren bi telefono elkarrizketak Ser irratikateak ezagutzera ematea ez dela delitu bere ustez. Benegasek «Jainkoa» deitzen zion Felipe Gonzalez Gobernuko lehendakariari eta «ipotxa» Carlos Soltxaga Ekonomia ministroari Sevillara zihoanean kotxe ofizialean. German Alvarez Blanco kazetari eta enpresaria eta Fernando Mujika Justizia ministro ohiaren anaiarekin izan zituen elkarrizketa horiek. Ser irrati kateak publiko egin zituen telefono grabaketa horiek apirilean. Jose Maria Benegas salatu egin zuen goardiako epailearen aurrean.

Auzitegi Konstituzionalaren doktrinaren arabera, Ignacio Bigeriego epaileak uste du zinta batzuek jendaurrera ateratzea ez dela delitua, lehentasuna ematen zaiolako adierazpen askatasunaren eskubideari hiritarren intimitate eskubidearen gainetik, batez ere pertsonai publikoak direnean, bi eskubideen arteko gatazka dagoenean.

«Benegas kasuan» doktrina hori aplikatu daitekeela uste du epaileak El Pais egunkariari egindako deklarazioetan, PSOEko antolakuntza idazkaria pertsonaia publiko delako eta irrati emandako elkarrizketak «interes publikoa» zuelako.

Elkarrizketen kokatze eta grabaketa Kodigo Penaleko 497 bis artikularen kontrako delitua izan daitekeela uste du Bigeriego epaileak. Jaen-eko probintzian, Bailen herritik gertu, egin zitezkeela grabaketak esan zuen Ignacio Bigeriego epaileak. Jaeneko radioafizionatu batek grabatu egin zituen elkarrizketak komunikabide batzuk adierazi zuten.

Poliziak 'El Ratilla' atxilotu zuen etxe aurrean

MADRIL

Poliziak atzo goizeko hamaiketan Adolfo Jimenez, 'El Ratilla' eta 'Panchino', atxilotu zuen Madrileko Komunitateko adin txikikoentzako zentrutik ihes egin ondoren asteazkenean. Hamabi urteko heroinazalea, ustez droga trafikoa aritzeagatik atxilotu zuen Madrileko Entrevias barrutiko Poliziak joan zen astelehenean. Epaileak aipatutako hezkuntz zentruan ingratatzea agindu zuen, baina irekia denez, ihes egin zuen asteazkenean. Harrez gero, Polizia haurraren bila aritu da. Entrevias barrutiko «Oin beltzen» txabola auzoan aurkitu zutenean, bere etxolaren aurrean, haurrak ez zuen ezer egin ihes egiteko. Ikaratuta zegoen eta atxilotu zuen polizietako batek esan zuen «gure seme bat bezala da». Adolfo Jimenez heroinazalea da orain dela bi urtetik. Aita ospitalean, drogak jota, eta ama gartzelan, droga trafikoa aritzeagatik, ditu.

Duela hogeitaz piztu zen Larzacen nekazariak irabazitako borrokaldia

Armada bere eremua handitu nahi zuen, Europar protesta handiak sortuz

Larzac-eko zelaiaren frantziar Armadak zeuzkan xedeak deuseztatzeko 70eko hamarkada osoa iraun zuen borroka duela hogeitaz piztu zen eta aste bukaera honetan ospakizun batzuk izan dira bertan. Elgarretaratze eta eztabaidak izango dira gaur arte eta Larzac-eko elkarleen batasunak lur eremu bat eskainiko dio Kanakiako ordezkari bati.

ALLANDE SOKARROS / BAIONA

Larzac-eko borroka oihartzun nahiko handia izan zuen, ez Frantziar bakarrik baizik eta Europa guztian eta munduan ere bai. Gerra hau duela hogeitaz piztu zen, orduko frantziar Defentsa ministroa zen Michel Debret-ek jakitera eman zuelarik, Larzac-ean Armadak daukan eremua handitu egin behar zela. Aveyron departamenduan, Frantziako erdialdean, aurkitzen den ordoki horretako nekazari ia guztiak hasieratik erabaki horren aurka altxatu ziren, ez bait zituzten nahi beren lurrik murrizterari utzi. «Gardarem lou Larzac» (Larzac-i eutsiko diogu) izan zen hasieratik bukaeraino borroka honek lau haizetara plazaratu zuen mezua. Oihu hau berea egin zuten Frantzia guztiko hainbat laborari eta baserritarrek baita ere Europa osoko ekologista eta bakezaileek.

MITTERRAND-EK PROIEKTUA DESEZTATU Frantziako Armada 3.000 hektareako lur eremu baten jabe zen Larzac-en bo-



Armada frantziarraren kontrako mobilizazioak izan ziren Europa osoan.

rrorka piztu aurretik. Militar zelaiaren hedapen plangintza baten barne, eremu hori 14.000 hektareata pasatzen nahi zuen Defentsa Ministeritzak eta xede hau obratzeko bertako hainbat nekazari desjabetu behar zen. Proiektu honen berri jakin bezain laster, aurkako mobilizazioak sortu ziren eta 1973an izan zen lehen elgarretaratze handian 60.000 lagun bildu ziren Larzac-eko zelaiaren urtebete beranduago, 100.000 lagunetik gora elgarretaratze zen eta 1978an Larzac-etik Parisera inoiz ez ibilaldia, 80.000 pertsona bidu zuen manifestaldi handi batez bukatu egin zen. Mobilizapenekin batera Larzac-eko nekazariak eta beren laguntzaileek lurren okupazioari ekin zioten eta 103 lurjabe zintzen zuten ez

ziotela inoiz Armadari amore emanen.

Azken batez, 1981. urtean Frantziako presidente aukeratu izan eta, François Mitterrand-ek proiektuaren ezereztatzeko erabakia hartzen zuen. Orduz gero, Larzac-eko elkarleen batasunak zelaiaren berpizte plangintza bati ekin dio, elkartasun asmoak oinarritzat harturik. Azken hamar urte hauetan, hogeitaz baserri eraiki dira Larzac-en ardi esnearen ekoizteari lotuak direnak gehien batez.


Asteburu honetako ospakizunen artean Frantziaren men dagoen Kanakia ugarteko abertzaleen ordezkari bat izango da, burujabetasunaren alde daramaten borrokarekin elkartasuna adierazteko.

Baleareak eta Valenciako hoteletako langileen erdiak ez dira finkoak

MADRIL

Baleareak eta Valenciako Komunitateko hoteletan lan egiten duen pertsonalaren ia erdia ez da finkoa, behin-behinekoa baizik, Politika Turistikoaren Zuzendaritza Nagusiak zabaldu duen arabera. Espainian sektore horretako langileen heren batek kontratu mota hori du.

Datuak 1990ekoak dira eta estadistika horrek dioenez, Andaluzia, Katalunia, Canarias, Baleareak eta Valenciako Komunitatea —hau da, Mediterraneoko kostaldea eta bi ugarte multzoak— ostalaritza espainiarrean lan egiten dutenen % 70 jasotzen dute. «Turismoaren Estadistiken Urtekariak» dioenez, langile gutxi eta gehien izan ziren hilabetean artean, abendua eta abuztua, % 65eko desberdintasuna dago, lau elkarre autonomotan % 100 gaintu zuten desberdintasun horrek eta Baleareetan % 422ra iritsi zen. Baleareetako hoteletan 14.529 pertsonak



BEÑAT AZURMENDI.

egin zuen lan iaz (hilabeteen arteko batezbesteko media), 7.354 (% 50,62) finko bezala eta 7.175 (% 49,38) behin-behineko kontratuare-

kin. Azaroan eta abenduan 4.948 eta 4.425 pertsona enpleatu ziren, eta maiatza eta iraila arte langileen zifra hori 19.726 eta 23.101 artekoa izan zen.

LANGILE GEHIENAK KOSTALDEAN

Turismo alorrean langile gehien izan zituen elkarre autonomoak Andaluzia (16.501 batezbeste urtean) Katalunia (15.160), Canarias (14.567) eta Baleareak (14.529) izan ziren. Enplegu ez egonkorrean Valenciako Komunitateak bigarren postua izan zuen Baleareen atzetik, behin-behineko kontratuak % 46,32 izanik. Madrileko hotelek eskaini zuten egonkortasun handiena, seitik batek bakarrik izanik behin-behineko kontratua. Madrileko Komunitatean oso gutxi aldatu zen langile kopurua okupazio handienetik txikienera, ekainean % 15,63 langile gehiago izan ziren azaroan baino. Diferentzia hori % 65,17koa izan zen Espainian.

LABURREAN

ORDEZKO zerbitzu soziala egiten dutenen egoera salatu du IUK

Izquierda Unidak soldaduzaren ordezkari zerbitzu soziala egiten duten objektoreen egoera ekonomiko larria salatu zuen atzo. Antonio Romero IUKo diputatuak eskatu zion Justizia Ministeritzari objektore horiek jasotzen duten diru kopurua handitu dezala. «Jateko haina diru ez dute jasotzen eta are gutxiago etxebizitza ordaintzeko» esan zuen Romerok eta gutxienez bi gauza horiek garantizatzea eskatu zuen.

HUELVAko suteak dirau, Jaen eta Cordobakoak ez

Paternako (Huelva), Cacereseko iparraldeko eta Villar del Humoko (Cuenca) suteak itzali gabe daude oraindik, eta Jaen, Cordoba eta Cuencako beste bat erabat itzalita edo kontrolatuta gelditu ziren. Paternako suteak bi foko izan zituen eta probokatua izan zen. Motoz ihes egiten ikusi zuten pertsona bat. Beste biak ere probokatua izan daitezke. Jaeneko sutea Santa Elena herrian hasi zen, Correderas de Despeñaperoseko geltoki parean.

HEROINAZALE

batentzat indultoa eskatu dute

Avileseko (Asturias) Drogen aurkako Lagunen Elkartek Angel Collado de Tomas indultatzea eskatu du. 34 urteko gazteak heroina uztea lortu zuen eta hiru urte t'ardi beranduago Poliziak atxilotu eta Ovidoko gartzelara eramanean zuen lehendik izan zuten bi urteko kondena bat betetzeko. Leoneko epaitegiak 1984ean ezarri zion kondena hori heroina trafikoa aritzen zen garaian.

Psc kooperatibak bultzatzea eskatu die bere udalei

Partit dels Socialistes de Catalunya (PSC) Batzorde Exekutiboak ekonomia soziala, kooperatibak, elkarrekin eta lan elkarre anonimoak bultzatzea eskatu die alderdiko alkate eta zinegotzietan. Herri katalanen «kalitate soziala» hobetzeko beharra gogoratu die onartutako dokumentu batek. Udal sozialistek bultzatu behar dituzten hiru lehentasun seinatu dituzte: ingurune politika, laguntza soziala hobetzea eta ekonomia soziala sustatzea.